

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko abenduak 20 · 1336 zenbakia



ARGAZKILARI ERRETRATATUENA

Zorionak eta
urte berri on!!

EUKI

- LEGEZKOA
- ZERGAZKOA
- FINANTZARIOA
- LAN ARLOKOA
- ENPRESEN BALORAZIOA

www.euki.com

• Ifarkale, 1 behea, Eibar • Tel: 943 204 291 • asesoria@euki.com



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

arat.
HORTZ KLINIKA - CLINICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Torlone Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratclinika.com



BISTA·EDER

Hortz Klinika - Clínica Dental

30 urte irribarreak eraldatzen.
Berrituak zu hobeto pautzeko.

**INPLANTOLOGIA &
ORTODONTZIA AURRERATUA**

Bista Eder, 19 Tel. 943 790 082 info@bistaeder.es

MIGUEL SEMINARIO

ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702886



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón 16-1.º c/tx. Eibar
943 20 72 17 - 1.º 80 42 28 06
amaia@fernandodontologia.com

Fisioterapeutak



ANE MENDIA

108 koloretan ilia.

- INDIATERAPIA
- KIBRE, LESIOAK
- Puzioak eta ZELULITISAK
- L-terapia + BERRERAKOAK

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ABUZAGUSTA, 20
T.L.F.: 943 53 06 42
ane_mendi@telefonos.com



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua

975.379

- San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
- 943 537 076 688 884 808
- info@eibarclinicadental.com
- www.eibarclinicadental.com

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tlnoa, 943 20 65 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

**Dra. Laura
Martinez**



**Dr. Alejandro
Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 85 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com

dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Kultura arnasten da Coliseon. Goi-mailako artistak igo dira bertako eszenatokira eta han elkartu ditugu Debabarreneko bi kultur sortzaile handi: Jasone Osoro eta Zaloa Urain. Idazketa eta ahotsa erabiliz asko adierazi dute biek, eta oraindik asko dute esateko: emakumea eta kultur sortzaile izatea zer den, sorkuntza lana, inspirazioa, iragana eta etorkizuna... Bideak zabaldu dituzte eta bideak egiten jarraitzen dute.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

indalezio Ojanguren

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



("...eta kitto!" k ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



Hortik esanak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Itsasoaren mailaren igoerak jokoak kanpo laga ditu Euskadiko kaiak ere: ez daude prestatuta gaur egungo itsasorako eta, zer esanik ez, etorkizunerako. Ez daude gaur egungo korronteetara orientatuta, horiek aldatu egin baitira, eta are gutxiago uhinaren altuerarako eta haizearen indararako. Eta, mesedez, zientzialari baten erreguari kasu egin: ahaztu Urdaibaiko Guggenheim zentroarena. Ibaia ibaia izan behar da, eta espazioa laga behar diogu itsasoari sartzeko eta ekosistemekin interakzionatzeko, hori baita gure segurtasun nagusia.

FERNANDO VALLADARES, CSIC-eko ikertzailea

Jendearen harridurak harritu nau ni. Esaterako, Aste Nagusiko txosnak muntatzen ari garenean, badira lana galdegiteko hurbiltzen diren gazteak. Lan guztia (aldamiaio igo, panelak egin eta margotu, barra txandak bete...) musu-truk egiten dugula jakitean, aho zabalik geratzen dira. Adigaitza suertatzen zaie, omen, diru truke (edo gimnasioan) ez den esfortzu bat egitea. Horrek zurtu nau ni, bolondreski eta bidezko zio bat dugulako egiten dugun auzolana ulertezina suertatzea egungo jendartearen sektore bati.

ITZIAR MORENO, Argian zutabegilea

Urtekaria abenduaren 30ean

Datorren astean Gabonetan guztiz sartuta egongo garenez, urteko azken alea –urtekaria izango dena– barixakuan kaleratu beharrean, astelehenean (hilaren 30ean) izango duzue zuen buzoietan. Urteko azken alea izango den hori Gabon Zahar egunean ospatuko dugun Eibarko Kirol Sarien ekitaldiaren bezperan helduko zaizue beraz.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PATXADA / PATXARA → Lasaitasuna. “Hi bai haizela agintaria patxara ederrekua, apaizera iritxi ez baiña kolpetik Aita Santua”.

PATXADAN → Trankiltasunezko egoeran, nasai. Gaztekeraz ‘Repanchigado, a sus anchas’. “Bazkalostian, jarri kerizan eta patxadan dago lo-jarixuetan”.

1972

Gabonetako Loteriaren 3. saria

Urte horretako Gabonetan, Loteriaren zozketa berezian, hirugarren saria irabazi zuten Larraiz kirol-dendakoek, 12.835 zenbakiarekin. Saritutako zenbakiarekin loteria-txartelak bezeroen artean banatu zituzte-nez, oso banatuta egon zen saria.

FOTOPLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 20
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
ZAPATUA 21
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
DOMEKA 22
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 23
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
EGUAZTENA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
EGUENA 26
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 27
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 28
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 4)
DOMEKA 29
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 30
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Abdelmalek Aarras.**
64 urte. 2024-12-11.
- **Miguel Fernandez Franco.**
85 urte. 2024-12-13.
- **Doroteo Urkia Lasuen.**
86 urte. 2024-12-13.
- **Angela De la Torre Bilbao.**
88 urte. 2024-12-13.
- **Fernando Antonio Lasa Gallastegi.**
79 urte. 2024-12-14.
- **Tirsa Calvo Prieto.**
89 urte. 2024-12-14.
- **Yosra Benssarghin Ghailan.**
28 urte. 2024-12-14.
- **Amaia Bergaretxe Gandiaga.**
92 urte. 2024-12-16.
- **Alexander Ros Zabala.**
48 urte. 2024-12-16.
- **Sara Larreategi Mujika.**
79 urte. 2024-12-18
- **Valeriano Blazquez Jimenez.**
77 urte. 2024-12-18



Herri Ekimen Legegilearen aldeko sinadurak biltzen hasteko oniritziaren zain

Legebiltzarrean aurkeztutako Herri Ekimen Legegilearen (HEL) aldeko sinadura bilketa masiboarekin hasteko oniritzia laster jasotzea espero dute pentsiodunek. Eusko Legebiltzarreko Mahaiaik, bere zerbitzu juridikoen aldeko txostena jaso ondoren, urriaren 29an jakinarazi zuen Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak irailaren 26an erregistratutako HEL hori tramiterako onartu zuela. Orain, Hauteskunde Batzordeak ikuskatuko du sinadurak biltzeko prozesua eta, “prozesu

hori Legebiltzarren osoko bilkura batean amaitzea, eztabaidatu eta onartzeko”, espero dute pentsiodunek. Zazpi urteko borrokaren ondoren, HEL horrek pentsiodunentzako 1.080 euroko gutxieneko diru-sarrera 14 ordainsaritan izatea lortu nahi dute, “egonkortu eta eguneratu dadin”. Eskaera horrek 100.000 pentsiodunengan dauka eragina, “gehienak emakumeak”. Hori dela eta, “ahalik eta herritar gehien” babesteak duen garrantzia nabarmendu dute.

Udaleko sei sailtako presidentzia Eibarko EAJ-PNVren zinegotzien eskutan dago

Eibarko PSE eta EAJ-PNVren artean sinatutako gobernu akordioaren ondorioz, EAJko sei zinegotziak sailtako presidente izendatu dituzte. Horrela, Eibarko jeltzaleak buru dituzten udal sailak hauek dira: Berdintasuna, Euskara, Gazteria, Ego Ibarra, Trafiko eta Mugikortasuna, eta Ingurumena. Jakinarazi dutenez, azaroaz geroztik, Elena Ibañez Anuncibay Berdin-

tasuneko presidentia da; Jon Perez Illana, Gazteriakoa; Mertxe Garate Larrañaga, Ego Ibarra; Alberto de la Hoz Gorriti, udal taldeko bozeramailea izateaz gain, Trafiko eta Mugikortasun saileko presidentea da; eta Aiora Arrieta Arreitunandiak eta Eva Juez Garmendiak, berriz, Euskara eta Ingurumena sailak eramango dituzte, hurrenez hurren.

Gabonetan egitekoa zen Akrodance ikastaroa bertan behera laga dute

Udalak jakitera eman duenez, Gabonetarako egin nahi zen Akrodance izeneko jarduera bertan behera geratu da azkenean, “izena eman duten pertsonen kopurua ez delako ikastaroan ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura heldu, ezta bi txandak elkartuta ere”.



Zapore Gozoak izozki eta txokolate denda berria Errebal Plazan zabalik

Errebal Plazan luzaroan hutsik egon diren lokalak betetzen hasi dira, poliki-poliki. Orain dela egun batzuk Basagunea denda inauguratu zuten, eta gaur, berriz, bigarren denda batek zabalduko ditu ateak, aldamenen dagoen beste lokal batean: Zapore Gozoak. Toribio Etxebarria kalean izozki-denda izan zuen Maite Bastidak bide berria hasiko du Errebalen, Gabonetarako denda inauguratuta. Esan digunez, “izozkiak, Mendaroko txokolate beroa, turroiak, gofreak, krepa, gailetak, marmeladak eta abar dastatu ahal izango ditugu bertan”. Martitzenetik domekara bitartean zabalduko du, 10:00etatik 13:00era eta 16:30etik 20:00etara.



Mende Erdiko ibilbidea ospatu du Grupo Eibar sustatzaileak

Grupo Eibar higiezin euskal sustatzaileak 50. urteurrena ospatu du, Ipuruako instalazioek eguaztenean hartutako ekitaldian. Ospakizunak 150 lagunetik gora bildu zituen eta, enpresako bazkide, hornitzaile eta langileez gain, erakundeetako ordezkariak zabala egon zen bertan, baita SD Eibar-ena ere. Ospakizunarekin bat egin dute, besteak beste, Eider Mendoza Gipuzkoako Diputatua Nagusiak, Denis Itxaso Eusko

Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda sailburuak, eta Jon Iraola Eibarko alkateak. 50 urteko ibilbidean, Grupo Eibar taldeak herritik kanpora ere egin ditu promozio asko, eta udalerririk horietako alkate ugari ere egon ziren jaietan.

Urteurrenaren aitazakiarekin, Patxi Aranegui bazkide-sortzaileari omenaldia egin zioten, eta hori izan zen, “zalantzarik gabe, ekitaldiaren unerik hunkigarriena”. Grupo Eibar taldearen or-

dezkarri gisa, Gorka Aranegui zuzendari nagusiak makila oparitu zion, “enpresaren sortzaile eta arima izateagatik”. Horrekin batera, Patxi Aranegui lotura estu-estua dauka Sociedad Deportiva Eibar-ekin. Izan ere, 18 urtez Eibar foball taldeko jokalaria izan zen eta, gainera, talde armaginarekin zuzendaritzako kide gisa beste 15 urte eman zituen. Hori dela eta, Amaia Gorostiza SD Eibar-eko presidentek klubaren intsignia damaskinatua eta bere izena daraman kamiseta eman zizkion. Eta, omenaldia ixteko, Ander bilobak aureskua aitonari dantzatu eta txapela oparitu zion.

Gabarraren ospakizun eguneko irudiak jasotzen dituen egutegia salgai

Batez ere Athletic-zaleen gustokoa izan daitekeen egutegia kaleratu du Deportiboko argazki taldeko kidea den Manu Sanchez elgoibartarrak. Txuri-gorriek Kopa irabazi ondoren, gabarrarekin egindako ospakizuneko irudiak bildu ditu egileak, hegazkinetik atera zituen 8.500 argazkietatik onenak aukeratu. Izan ere, abioi-pilota

ere bada, eta egun hartan zerutik ateratako irudietako batek El Correo egunkariaren lehen saria ere irabazi zuen.

Guztira 1.500 ale kaleratu ditu, eta Eibarren Untzagako Arriola eta Estaziñoko Kike kioskoetan erosi daiteke egutegia, 10 eurotan. Informazio gehiago: amilquinientospies@gmail.com.





Kirol Txartelak zerbitzu gehiago eskainiko dizkie erabiltzaileei urtarriletik aurrera

Eibartik kanpora bizi diren Kirol Txartelaren erabiltzaileek txartelaren barne dauden udal kirol-instalazioak erabili ahal izango dituzte urtarrilaren 1etik aurrera. Udal Kirol Patronatetik esan dutenez, “horrela, txartelaren irismena modu esanguratsuan handituko da. Hobe-kuntza honekin, igerilekuak ez ezik, Ipuruako, Unbeko eta Orbeako kiroldegietako mantentze fisikoko gelak ere erabili ahal izango dira, bai eta Unbeko atletismo-pistak eta Ipuruako rokodromoa ere, aparteko ordainketarik egin barik”. Bestalde,

herritarrek hala eskatuta, Ipurua eta Orbea kiroldegiak goizago zabaltzea erabaki dute: 07:00etan zabalduko dituzte, astelehenetik barixakura.

Gabonetarako ordutegiak

Horrez gain, kirol-instalazioen ordutegiak bereziak izango dira Gabonetan, abenduaren 24tik 31ra: Ipurua kiroldegia 07:30etik 13:00era zabalduko dute; Unbe kirolgunea, 10:00etatik 14:00etara; eta Orbea, 07:30etik 14:00etara. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean hirurak itxita egongo dira.

Gaur zabalduko dute Untzagako izotz-tobogana, haur eta helduentzat

Eibarko Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak ume zein helduen tobogana antolatu dute Gabonetarako, eta gaur zabalduko dute. Untzaga plazan, udaletxe parean ipini dute eta lau alditan jais-teagatik 3 euro ordaindu beharko dira (dohainik, EMGI elkartearen bonoarekin).



Indarkeria bikario eta instituzionalari buruzko hitzaldia eta erakusketa antolatu dituzte Ipuruako merkatu plazan

Janire Ruiz de Gordejuela abokatua indarkeria instituzionalari buruz egingo du berba gaur arratsaldean, 18:00etan, Ipuruako merkatu plazan. Eta, hitzaldiarekin batera, gai berari lotututako erakusketa zabalduko dute, Blanca Tulleudaren ilustrazioekin. Abenduan eta urtarrilean ikusteko moduan egongo da, beti ere eraikina zabalik dagoenean (hau da, beste jardueraren bat dagoenean).

Tulleuda sare sozialetan aktibista da, eta urtarrilean Eibarre-
ra etorriko da, Ipuruako merkatu plazako elkartearen eskutik, *Indarkeria bikarioa* izenburuko hitzaldia ematera (urtarrilaren 24an, 18:00etan izango da hitzaldia). Hain zuzen ere, Blanca Tulleuda oso ezaguna da Instagramen (@labirabola), indarkeria instituzionala eta bikarioa salatzeko sortzen dituen edukiengatik. Gainera, CEPAMA eta Libres de violencia vicaria elkarteetako kide ere bada. Hitzaldi biak gazteleraz izango dira.



Eibart Gabonetako artisautza azoka urtarrilaren 5era arte egongo da Untzagan

Eguaztenaz geroztik Eibart Gabonetako 20. artisau azoka dago Untzagan, Eibarko artisauen ekimenez. Urtero bezala, Gabonak pasatu arte egongo da martxan, era guztietako artisautza eskaintzeko. Edizio honetan zortzi postu ipini dituzte artisauak, eta hauek dira parte-hartzaileak: E. Mendi, Pablo, Tramanduart, Eskusotxo, Bitxikool, Eskune, Zugehini, Isabel Orozco eta Hartara.

Urtarrilaren 5era arte egunero zabalduko dute, abenduaren 25ean eta urtarrilaren leian izan ezik. Goizez 11:00etatik 14:00etara joan daiteke, eta arratsaldez, berriz, 17:00etatik 20:30era.

Ana Telleria, Eusko Jaurlaritzako Auzoak Berroneratzeko eta Hiri-Agendako zuzendari

Ana Telleria sozialista Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko Auzoak Biziberritzeko eta Hiri Agendako zuzendari izendatu dute. Ekonomia Zientzietan lizentziatua, Telleria 2013an hasi zen Eibarko Udalean beharrean, Alkateztako idazkari gisa,



eta 2015eko maiatzaz geroztik zinegotzia da. Bederatzi urte eta erdi hauetan, besteak beste, Langileria eta Garapen Ekonomikoko sailerako arduraduna izan da, eta gaur egun Eibarko Udaleko lehen alkateorde eta Ogasun eta Hirigintza zinegotzi delegatua da. Horrez gain, Gobernu Irekiko Ordezkaritza eta PSE-EE taldeko bozeramailetza ere baditu. Kargu berria Udalean egiten duen lanarekin bateragarri egingo duela adierazi du, "urtarrilaren hasieran aurrekontuak onartu arte".

X
XABALO
 2024

F. Calbeton, 12 943096884
 OKINDEGIA / GOZOTEGIA
 TXUTXE-DENDA
 JANARIDENDA TXIKIA

*Gabon
 Zoriontsuak!*

leku berri bat Ego-Gain, 2
 943 558728

TOPA-LEKU
taberna
 egunero elkarrekin egoteko

FUNEUSKADI
 Funerariak

FUNERARIA MUGICA
 Funerariak

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Oraola, 27	Elgoibar: Kivillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdesolana, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
 Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Txopitea eta Pakea mendeurrena agurtzeko

Aurreko barixaku arratsaldean udaletxeko batzar aretoan egindako ekitaldian eman zioten Eibarko Klub Deportiboari Txopitea eta Pakea saria. Iñaki Osoro Deportiboko presidentea eta Aresatz Usobiaga presidenteordeak jaso zuten Jorge Oteizaren eskultura enblematikoaren erreplika, Jon Iraola alkatearen eskutik. Klub Deportiboko bazkide asko bertan zeudela aprobeztatuta, Klub Deportiboak argitaratzen duen Kezka aldizkariaren zenbaki berezia aurkeztu zuen Antxon Narbaizak.



Bideoak gure YouTube kanalean ikusgai



Jon Iraola alkatearen berbetan, “1924an sortua, Eibarko Klub Deportiboak funtsezko zeregina bete du hainbat diziplinaren sustapenean, hala nola atletismoan, euskal pilotan, mendizaletasunean, espeleologian edo xakean. Eta identitate kolektibo bat bultzatu du, esfortzuan, superazioan eta parte-hartze komunitarioan oinarritua. Bere lanari esker, kirol-sare zabala sortu da, eta Eibarko balioak herriaren mugetatik haratago proiektatu dira. Deporra klub bat baino gehiago da; instituzio bat da, gure herriaren nortasuna sinbolizatzen duena. Sari hau merzitako aitortza bat da, elkartearen 100 urteko historiagatik eta Eibarko enbaxadore ezin hobeaz izateagatik”.

Saria jasotzeaz haratago, aurtengoa urte berezia izan da Eibarko Klub Deportiboarentzat, bere sorreraren mendeurrena ospatzeko ekitaldiek hamabi hilabeteak bete dituzte-eta. Iñaki Osoro presidentea eskerrak eman zizkion Udalari, aitortza hori jasotzea posible egin duten guztiak ahaztu barik: “Eskerrik asko ehun urte hauetan familia izan zareten guztiei, baita bazkide eta kolaboratzaileei ere. Sari hau ez da gurea, denona da, kolaborazio estu baten ondorioa”.

Alanbrea artea bihurtu zuen eibartarra

Aurreko zapatuan hil zen Jose Zugasti eskultorea, 72 urterekin. Gure herriko artistak bere ibilbidea Eibartik kanpo egin badu ere, laga du arrastoa gurean: Egogain kalean, esaterako, "Formen dantza" izeneko obra dugu. Hortik aparte, 2016an "Biharra, arimakoa" erakusketaz gozatzeko aukera izan genuen Portalean, bere ibilbideari errepasoa emateko aukera bikaina. "Burdina barruko sentimenduak ateratzeko bidea" zela zioen orduan.

Jose Zugasti eskultore eibartarra 1952. urtean jaio zen, eta obra ugari utzi du; horietarik asko, Eibarren bertan ikusgai dagoenetik aparte, Donostiako eta Bilboko kaleetan ere ikus daitezke. Bere azken lanetako bat Donostiako Musika Hamabostaldiko aurtengo kartela izan da. Burdin hariak edo alanbreak garrantzi berezia izan du bere eskuetan, baina horra jauzi egin aurretik beste arlo batzuk ere landu zituen eibartarrak.

Jose Zugastik Arte Ederrak ikasi zituen Madrilen. 1970eko hamarraldiko lehen urteetan margogintzari heldu zion, eta bereziki paisaiak landu zituen, urbanoak zein bukolikoagoak. 1980ko hamarraldian giza figura jarri zuen erdigunean, margogintzan betiere, eta hortik abstrakzioa egin zuen jauzi. Berehala, burdin haria deskubritu zuen, eta geroztik ez zion inoiz utzi material hori erabiltzeari.

1984an Donostia bizitoki hartu zuenean Erreenteriako Beraunen jarri zuen lehen tailerra. Hortxe sortu zuen bere lehen eskultura: giza figura bat eskaileran gora. 2002an lehen obra publikoa instalatu zuen, Euskal-



Burdin haria edo alanbrea izan du Jose Zugastik espresio bide.

"Sentimendu asko azaleratzen ditu *Formen dantza lanak*"

duna jauregiaren inguruan, Bilbon. Haren ondoren beste obra publiko mordoia instalatu zituen, besteak beste Donostiako Tolosa hiribidean, unibertsitateen inguruan. Eibarren ipinitako obra dimentsioagatik da berezia: hamalau zentimetro lodi diren altzairuzko uztaiez egina dago, eta oinezkoak tartetik pasa litezke. Lan horren inguruan honakoa zioen egin genion elkarrizketan: "Eskultura horrek luzaroan gordeta egon diren sentimendu asko azaleratzen ditu. Eibarren toki horretan propio ipintzeko sortutako lana da: hor Kakalardokua egon zen, zubi estua; eta, diotenez kakalardoak handik pasatzen ziren. Eskulturarekin tokiak izan duen metamorfosia bera adierazi nahi izan dut: sasoi bateko zubia, kakalardo babeslea... eta arku-dantzarekin lotura ere badu".

1990etik 2010era erakusketa ugaritan parte hartu zuen, besteak beste Arco, Berlin eta Londresko azoketan. Bestalde, Gasteizko Artiumen, Bilboko Arte Ederren Museoan eta Donostiako San Telmon ikus litezke Joseren obrak.



Zugastik egindako Egogain kaleko "Formen dantza".

“Oso garrantzitsua da azaltzea pantailaren atzean gertatzen dena pantailaren aurrean jarri aurretik”

TELMO LAZKANO • Hezitzailea



Altxa Burua taldearen eskutik ZEOS programaren berri eman dute azken asteotan Eibarren Telmo Lazkanok eta Maitane Ormazabalek. Telefono mugikorren (hain zuzen ere, smartphonen) zentzuzko erabilera eta osasuna saretzeko antolatu zuten lau egun iraun zituen tailerra, eta bertaratu ez zirenei informazioa helarazteko Lazkanorekin egoteko aukera izan dugu.

Sare sozialek eta sakelako telefonoek haur eta nerabeengan duten eraginaren inguruan kezka zabaldu da euskal gizartean eta horri erantzuna emateko sortu da Altxau Burua mugimendua. Eibarren orain dela aste batzuk aurkeztu zuten euren burua eta gaian buru-belarri lanean ari den Lazkano ekarri dute. Ormazabalekin batera ZEOS programa garatu du eta gaiari bikain heltzen diote ‘Nerabeen Garrasia’ podkastea.

Zer da ZEOS programa?

Azkeneko hamarkadan bi errealitate identifikatu ditugu eta, mugikorrarekin dugun harremana adikzio hitzarekin lotu daitekeen bezala, adingabeen artean buru-gaixotasunek hazkundera izan dute. Bi errealitate horiek eskutik helduta doaz nahi baino neurri handiagoan, eta ZEOS programa horri argia ematera eta ‘orain zer?’ galderari erantzunak ematera dator. Ez dugu analisisian edo diagnostikoan gelditu nahi, horri erantzuteko egitasmoak eta tresna praktikoak sustatu nahi ditugu, bai norbanako bai familia bai herri bezala. **Eibarren egin dituzuen saioetan zertan jardun duzue zehazki?**

Lehenengo saioetan ezagutza denon artean eraiki dugu.

Kausalitate faktoreak, korrelazioak eta beste hainbat kontu non dauden ikusi dugu. Bi konpetentzia landu ditugu lehenengo bi saioetan: konpetentzia digitala eta konpetentzia psikoemozionala. Beste bi saioetan ezagutza hori praktikara nola eraman landu genuen. Arlo psikoemozionalari dagokionez, buru-gaixotasunen prebentzioan eta kontentzioan jardun genuen, hau da, nerabeen ulermenean. Mugikorren inguruan, bestetik, norbanako, familia eta herri bezala zer egin dezakegun aztertu genuen. Adibidez, norbanako edo familia bezala mugikorrak kontrolatzeko zein teknika dagoen ikusi genuen, eta herri bezala Altxa Burua bezalako dinamikek nolako garrantzia duten aztertu genuen.

Urteak daramatzazu gaian trebatzen, Altxa Burua ekimenak ere egin du bere bidea... Ikusten hasi gara lan horren emaitzak?

Oraintxe ez dut daturik eskura, baina badakigu 2-3 urtetan oso aldaketa handia eman dela gai horren inguruan. Adibidez, 2021ean, Zumaian, DBH 1eko ikasleen %10ak soilik ez zuen telefono mugikorrik eta gaur egun %65 da mugikorrik ez duena. Alegia bertsioa aldatu egin da eta gehiago dira mugikorrik ez duten ikasleak. Zumaian bezala, Zarautzen, Usurbilen, Tolosan eta beste hainbat tokitan gauza bera gertatu da.



Maitane Ormazabalekin batera ZEOS programa azaldu die Telmo Lazkanok eibartarrei. TELMOLAZKANOK

Zergatik atzeratu beharko litzateke haur eta nerabeen sarbidea mugikorretara?

Beraien osasunean eta garapen kognitiboan demaseko eragina duelako. Hori bi modutara ulertu behar da: kontsumo beretik datozen ondorioak eta kontsumo horren ondorioz zer egiteari laga zaion. Lehen moduari helduz, mugikorra da guztia, baina da guztia orain momentuan. Hau da, “nahi dut eta badut”. Beraz, gazteek garatu beharko litzuketean hainbat balio (frustrazioarekiko tolerantzia, adibidez) kaltetuta agertzen dira. Arreta-gaitasunean ere eragin nabarmena du. Garuna organo bat da, baina muskulu batek bezala jarduten du: erabiltzen badut, potentziatu egingo dut; baina ez badut erabiltzen, kaltetuz joango da eta erabiltzen dudana modu horretara moldatuko da. Beraz, nire denbora gehienez bideo hutsalak ikusten baditut, zailtasunak izango ditut arreta gehiago eskatzen duten edukien aurrean (liburuak irakurri, pelikula bat ikusi...). Gazteak hori guztia garatzeko oso momentu ebolutiboan daude. Beste albo ondorio garrantzitsu bat zera da: pornografiaren lehen kontsumoa 8 urtetara jaitsi da. Ez da jaitsi bilaketa egitearen ondorioz, baizik eta pornografiaren

“2021ean, Zumaian, DBH 1eko ikasleen %10ak soilik ez zuten telefono mugikorrik eta gaur egun %65 da mugikorrik ez duena”

industriak erabiltzaile hauek aurkitu dituelako. Horrekin batera eduki ez-zibikoek kontsumoak dituen eraginak daude (sexualizazioa, biolentzia...), sareetan barra-barra aurkitu daitekeena. Ondorioz, nerabeek euren balioen eta identitatearen eraikuntzaren momentu garrantzitsuan daude modu naturalean, iritzi kritiko gabe, eta horrenbeste eduki ez-zibiko kontsumitzeak eduki horiek normalizatzea ekartzen du. Gainera, errepikatzen joera handitzen du, eduki horiek askotan sareetan saritu egiten direlako. Horri ziberjazarpenera izateko aukera gehitu behar zaio. Ziberjazarpenera da gure adingabeetan bere buruaz beste egiteari lotutako egoera nagusienetako bat.

'Nerabeen garrasia'
podkasta



Beraz, mugikorretarako sarbidea zenbat eta goizago eman, gero eta zailagoa izango da horrelako egoerak kudeatzea. Txanponaren beste aurpegia hau da: gazteen herenak baino gehiagok 5 orduetik gora ematen ditu egunero mugikorrarekin eta horrek erakusten du ez diela beste ezer egiteko denborarik ematen. Hain zuzen ere, jarduera osasuntsuek pisua galdu dute: kirola egitea (kantitatean eta kalitatean), emozioen kudeaketa, naturarekin harremana izatea, arte eta sormena lantzea eta, batez ere, pertsonen arteko benetako harremanen gainbehera. Beraz, ondo egiten dieten gauzak baztertzen badizkiegu eta buru-osasuna kaltetzen badie, balantzak alde batera egiten du.

Zein adinetara arte atzeratu beharko litzateke nerabeen sarbidea mugikorretara?

Maitane eta biok bide bat marraztu dugu zentzu horretan, baina nazioarte mailan zehaztuta dago 16 urte baino lehenago smartphonerik ez edukitzea, ahal den neurrian. Benetan behar bat badago eta ez beldur bat, telefono analogiko edo deitzeko bakarrik balio duen erloju batekin konpondu daitezke eta sarbidearen adina atzeratu. Baina adina atzeratzeagatik atzeratzeak ez du harreman osasuntsu bat ekarriko. Askok lagunduko du, heldutasuna behar delako, baina txikiak gai horretan hezitu behar ditugu ezagutza emanaz eta eredu izanez. **Ziur aski noizbait gazteek smartphone bat edukitze-ko momentua helduko da. Ezinbestekoa da aurretik hezitze-lan hori egitea?**

Duda barik! Guk autoaren gida-baimenaren antzeko ibilbide bat marrazten dugu. 14-16 urte bitartean, Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklo horretan, normalean gauza zailagoak ulertzeko gai dira eta, beraz, oso garrantzitsua da azaltzea pantailaren atzean gertatzen dena pantailaren aurrean jarri aurretik. Adibidez, jakin behar dute produktu hauek guztiak zergatik agertzen zaizkigun dohainik, nahiz eta sortzen eta mantentzen hain garestiak izan; edo gure arreta nola lortzen duten (zein teknika teknologiko eta psikologiko erabiltzen duten). Haur eta nerabeak digitalki ahalduntzea lortu behar dugu. Horretarako, lehen kontaktua edukitzeko



“Gazteen herenak baino gehiagok 5 orduetik gora ematen ditu egunero mugikorrarekin; horrek erakusten du ez diela beste ezer egiteko denborarik ematen”

gurasoen mugikorrak erabili ditzakete. Horrela, 14-16 urte artean teoria ikasi ondoren, praktikara pasako ginateke, autoan bezala, eta autoeskolan gertatzen den moduan, bidelagun on bat izan behar dute. 16 urterekin smartphone bat maileguan laga ahal diegu eta 16-18 urte bitartean horren erabileraren ondorioak ikusi ditzakegu, praktikan egongo balira bezala. Helburua gailuekin harreman osasuntsua izango duten norbanakoak izatea da. Beraz, epe horretan euren kabuz erabilera egokia egiteko gai direla erakusten badute, kontrol hori murrizten joango da eta 18 urterekin, ezagutza sendo batekin, tresnak izango dituzte gailu hauek erabiltzeko, nahiz eta salbuetsita ez egon hanka-sartzeak egiteko.

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA



TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
argentziak

610 532 922 www.thelecer.com

KRISTALAK



J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com eta faxa:
943 203 903

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

baiza toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txenta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Aziltain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PLAGEN AURKA



PLAGANATURA
PLAGEN AURKARAKO ZERBITZUA

www.plaganatura.com

943 203 700
E-LAGUNA



943-206776

Argazkilari eta mendizale geraezinaren lana Portalean

Hilaren 12an inauguratu zuten "Indalecio Ojanguren 1887-1972" izenburuko erakusketa Portalean. Urteko azken erakusketa izango da, eta Klub Deportiboaren Argazki sailak mendizale eta argazkilari eibartarrari eskaini nahi izan dio, "Klubaren mendeurreneko ospakizunen azken egunekin bat eginez". Ojangurenen argazki esanguratsuenen kopiak, argitaratu gabekoak, jatorrizkoak, eta haren familiakoei esker gorde diren objektu pertsonalak ikus daitezke, besteak beste. Urtarrilaren 12ra arte bisitatu daiteke, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

Berezia izan zen benetan. Argazkilari gutxi izango dira hainbeste irudi laga dizkigutenak, sasoi bateko bizitza islatzeko gauza izanik aldi berean. Mendizalea izateak

ere asko lagundu zion estudiotik irteten eta hainbat tokitako irudiak atera eta bestean eskuetan jartzeko orduan. Jakina, hor bere pisua izan zuen baita komunikabide bazuentzat lanean jardun zuela ere.

Gaztelaniaz *El Fotógrafo Aguila* goituzenez ezaguna, XX. mende hasierako Euskal Herriaren argazki bilduma handia osatu zuen, mendiak eta orduko gizartearen parte ziren herritarrak protagonista nagusi bihurtuz, modu horretan balio etnografiko itzela duen bilduma osatzeraino. Badu beste ezaugarri berezi bat bere lanak: gutxi izango dira, bera argazkiaren egilea izanik, hainbestetan azaltzen direnak irudietan. Autoerretatuaren mai-sua bihurtu zen Indalecio.

Indalecio Ojanguren 1887ko azaroaren 15ean jaio zen Eibarren eta, 16 urterekin, G.A.C. enpresan lanean hasi zen, errebolberren tiragailuen muntaketan espezializatuz. Roman Ortuoste argazkilariaren eraginez, argazkilaritzan interesatzen hasi zen. 1908. urtean ABC egunkariak bere argazki bat publikatu zuen; ordaintzen zioten lehenengo aldiz izango zen. Mendikuen aholkuz, mendietan barrera lehenengo txangoak egiten hasiko da eta, argazkilaritza eta mendizaleatasuna uztartzearekin batera, bere lanak maila berezia



Sari asko irabazi zituen Ojangurennek, bere argazkietako balio etnografikoari esker.

>>> Balio etnografiko itzela dute berak ateratako herritarren irudi esanguratsuak

lortuko du. 1913. urtean Tolosan jasotako sariarekin *Tipos Vascos* izenburuko seriea hasi zuen.

1914an, 27 urterekin, bere argazkigintza estudioa ireki zuen; dena dela, ordurako makina bat lan grafiko eginak zituen, hala nola, ezkontzak, kirola zein industria gai nagusitzat zituztenak. Euskal Herrian bizi izan zen mendizale-tasunarekiko hastapen haietan Indalecio Ojangurenek esku-hartzea izan zuen eta 100 mendien gailurra egitea lortu zuen lehen gipuzkoarra izan zen; ez zen bakarra izan, beste zazpi aldiz burutu baitzituen. Mendiz mendi egiten zituen txangoetan zeraman argazki



Erakusketaren inaugurazioko irudiak. Goian, familiakoak; behean, Deporrek argazkilariak.



kamerarekin ikusten zituen paisaia eta kokapenen argazki ikusgarriak egin zituen, horietako askotan bera ikusi dezakegularik. Hogei bat aldizkari eta egunkarirekin elkar-lanean ere jardun zuen horrela. Hedabide anitzetarako argazkilari independentetzat (*freelance*) lan egin zuen, eta bere lanak Argentinaraino ere iritsi ziren.

Sari asko jaso zituen, arlo askotakoak gainera: Eusko Ikaskuntzak antolatutako I. Kongresuan erreportajeen lehen saria; Kultur eta Turismo Ekintzetxeak armari heraldikoei buruz egindako bildumagatik saritu zuen. 1967. urtean Eibarko Klub Deportiboaren Oho-rezko Presidente izendatu zuten. 1972ko otsailaren 18an Eibarren zendu zen arte makina bat omenal-

di eta sari jaso zituen. Bere omenez Eibarko Udalak kale bati bere izena jarri zion eta aurten, esaterako, bere izena daraman Argazkilaritza Lehiaketaren 37. edizioa egin da.

Hil eta 52 urtera, berak ateratako irudiak inoiz baino eskuragarriago ditugu, euren artean Gipuzkoako Artxibo Nagusian dagoen Ojanguren Argazki Fondoa nabarmendu daiteke. Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik Portalean dugun aukera ere ez da nolana hikoia, Indalecioren familiakoei esker ondo gordetako materiala erakusten baitute bertan. Aurrekoek gain, Deporrek kaleratutako azken Kezka aldizkari berezian Ojanguren buruz Jose Valderreyk landutako artikuluan ere errepassatzen da haren ibilbidea.



MARINA PEROSANZ

Koloretako argiak

Koloretako argiak, apaingarriak, gabon kantak... Giro ederra sortzen da Gabonetan. Harrera honekin, Olentzero herrira jaisteko irrikan egon beharko litzateke. Baina... Zenbat urte daramatza Olentzerok jaisten? Zenbat aldiz ikusi du hau guztia? Beharbada ez zaio hain berezia irudituko jada. Agian bere zeregina betetzera besterik ez da herrira jaitsiko, datorren urterako prestatu behar duen guztia ate joka duen bitartean.

Ni ez naiz Olentzero eta ez ditut berak adina Gabon bizi. Hala ere, desilusio horrek kezkatzen nau: egun horiek tramite huts bat bilakatzea, errutinara itzuli arteko igarobide txiki bat izatea, eta ez lehen bizi nuen garai magikoa. Izan ere, urteak pasa ahala, iruditzen zait nire barnean “errealitatea” fantasiari lekua kentzen ari zaiola.

Haztearen trikimailu bat dirudi. Magoaren trukoak deskubritzen ditugunean bezala. “Errealitateak” kolpatzen gaituenean, ilusioaren fokua lekuz aldatu beharko genuke, magian sinesten jarraitzeko. Helduak egiten garen heinean, mundua ikusteko modua aldatu egiten da, baita fantasia ikusteko modua ere. Olentzerok ez dakit, baina beste edozein helduk, ziur aski, fantasia bat fikzio bat bezala ikusiko luke, hau gezur bilakatuz. Ume batek, aldiz, aukeraz betetako mundu bat aurkituko luke fantasian.

Gustatzen zait helduak umeak bezain erraz ilusionatzen direnean, ameslariak direnean. Zoritxarrez, ezaugarri hau askotan inozoa izatearekin lotzen da, naif izatearekin. Ahuleziazat hartzen da. Nik, aitzitik, indartsu egiten gaituen zerbait dela esango nuke.

Horregatik, aurten ilusioa eskatuko diot Olentzerori. Umetan nuen ilusioa berreskuratu nahi dut, Gabonak irauten duten bitartean, behintzat. Agian gehiegi eskatzen ari naiz edo, agian, nire kabuz berreskuratu dezakedan zerbait da. Dena den, lehen pausoa nire leihoan koloretako argiak jartzea izan daiteke. Horrela, Olentzerok berak ere izango du ilusioa mantentzeko aitzakia, dekorazio berria ikusteko aukera izango baitu.

“Gustatzen zait helduak umeak bezain erraz ilusionatzen direnean, ameslariak direnean. Zoritxarrez, ezaugarri hau askotan inozoa izatearekin lotzen da, naif izatearekin”

ek!

Eibarko ...eta kitto!
Euskara Elkarteko
hedabidea

dkt

Debabarreneko
Komunikazio
Taldea



Bideak eginez

JASONE OSORO ETA ZALOA URAIN IDAZLEA ETA MUSIKARIA

Kultura arnasten da Eibarko Coliseo antzokian. Goi-mailako artistak igo dira bertako eszenatokira eta han elkartu ditugu Debabarreneko bi kultur sortzaile handi: Jasone Osoro eta Zaloa Urain. Idazketa eta ahotsa erabiliz asko adierazi dute biek, eta oraindik asko dute esateko.

Testua eta argazkiak: Ekhi Belar.

Bideoa: Yanire Sagredo.

Zuentzat zer da emakumea eta kultur sortzailea izatea?

Zaloa Urain: Badirudi bi titulu ezberdin direla, baina azkenean ni neu naiz. Emakumea naiz eta baita sortzailea ere. Ez da bilatu dudan zerbait, horrela etorri zait.

Jasone Osoro: Bai, zerbait berezkoa. Nik ere antzera sentitzen dut neure burua. Emakumea naiz, baina bai sentitu izan dut edo sentiarazi didate etiketa moduko bat dela. Orduan, alde batetik, emakume bezala bai sentitu dut nahi dugun tokira iristeko oztopo gehiago ditugula eta, iristen garenean ere, emakume bezala hartzen gaituztela, ez egiten dugun sormen lanarengatik bakarrik; eta bestetik, sentiarazi didate emakumea naizelako iritsi naizela hainbat tokitara. Kontraesana dirudi. Gorputzaren zama sentitu izan dut. Urte asko egon naiz naizena aldarrikatzen eta orain bakeak egiten ari naiz: Jasone Osoro naiz, harro nago eta hau da nire ibilbidea literaturan.

Z.U.: Badirudi guk egindako lana beste optika batetik begiratzen dela emakumeak izate hutsagatik. Adibidez, orain dela gutxi kontzertu bat lotzeko deitu ziguten eta euren arrazoia zen emakume bat nahi zutela eszenatokian. Bai, emakumea naiz, baina ez deitu emakumea naizelako bakarrik.

Nolabait esatearren, kupoa betetzeko?

J.O.: Niri ere gertatu izan zait. Oraindik antolatzen dira 'Euskal literatura eta emakumeak' moduko saioak, baina 'Euskal literatura eta gizonezkoak' ez da antolatzen, ezta? Lehen liburua aurkeztu nuenean prentsako titular batek 'Emakumea eta gaztea' zioen. Badira gauza batzuk gizonezkoek ez dituztenak bizi. Gaur ere hemen gaude ez sortzaileak garelako baka-



“Gertatu izan zait telebistara tertuliakide moduan joan eta kontua ze guapa agertzen nintzen izatea. Bale, baina zer esan dut?”

“Barrenean dut sorkuntzarekiko behar natural bat”

JASONE OSORO ELGOIBAR, 1971

Informazio Zientzietan lizentziatu ondoren, kazetaritza lanetan eta telebistan jardun zuen hainbat urtetan aurkezle eta gidoilari gisa, egunkari eta aldizkarietan zutabeak idazteaz gain, baina literatura da bere bizitza. 'Tentazioak' izan zen bere lehen lana eta harrezkero hainbat eleberrri, saiakera eta biografia idatzi ditu haur, nerabe zein helduentzat, sariak ere eskuratuz.



“Badirudi guk egindako lana beste optika batetik begiratzen dela emakumeak garelako”

“25 urte hauetan abeslari bezala hain ikusgai egotea gainean eraman dudan oso zama latza izan da”

ZALOA URAIN EIBAR, 1976

Eibarko Kokein taldeko abeslaria da. Taldeak 25 urte bete ditu aurrean eta ‘Bidea Da Helmuga’ disko berriaren argitarapenarekin ospatu dute urteurren berezia. Bere ahotsa euskal musikaren ikurretako bat da eta erreferentzia izan da musikan trebatu nahi izan duten askorentzat. Sortzeaz eta abesteaz biziki gozatzen du, eta eszenatoki gainean bizi den magia gustatzen zaio.

rrik, baizik eta emakume sortzaileak garelako, eta gizonezko bati ez liokete esango kultur gintzari buruz berba egin nahi dutenik gizonezkoen ikuspegitik. Hori oraindik ez da gertatu. Beraz, horrek esan nahi du oraindik gure kasua arraroa dela. Zergatik? Urte askotan plaza publikoa gizonezkoena izan delako.

Z.U.: Eta jarraitzen du horrela izaten!

J.O.: Edozer egiten dugula ere epaitu egiten gaituzte emakumeak izate hutsagatik eta ez dakit gizonezkoek hori bizi duten. Gizonei beraien lanarengatik epaitzen zaie, baina ez gizon baten gorputzean jaito direlako.

Z.U.: Musikan egindako ibilbide guztia lau gizonezkoekin partekatatu dut eta beraiei eskatu zaiena eta niri eskatu zaidana oso ezberdina izan da beti. Adibidez, itxuraren aldetik. Badirudi guk eder egoteko behar bat-edo dugula eta horrela sentitu izan dut. Kasu askotan ustez laudorioak direnak entzun ditut, “oso polita da” eta horrelakoak, baina horrek zer zirikusi du egiten ari naizen lanarekin? Eta niri esaten badidazu, besteei zergatik ez diezu berdina esaten? Taldekideak aita eta ama izan garen kasuetan ere, gure rolen inguruan antzera gertatu da. Badirudi emakume eta ama izate horretan sortzaile izateari utzi beharko geniokeela amatasuna bizitzeko, baina taldekideen kasuan inoiz ez dut entzun horren inguruan galdetu dietenik.

J.O.: Lehen, itxuraren kontua aipatu duzu eta, nire kasuan, atzean egiten dut lana, bakardadean, ez dut talderik behar eta ez naiz publiko aurrean aritzen, are gutxiago zu bezala, talde bateko abeslaria izanik, baina bai gertatu izan zait telebistara tertuliakide moduan joan eta jendeak aipatzea ze guapa agertzen nintzen eta horrelakoak. “Bale, baina zer esan dut?”. Gizon bati hori esango liokete? Agian bai, ez dakit, baina argi dago oso ezberdin ikusten gaituztela, kanpoko begirada oso ezberdina dela.

Z.U.: Telebistan agertzen garenean betiko komentarioa da: Ze guapa zeunden! Inoiz moskeatu egin naiz eta esan didate ea zergatik haserretzen naizen gauza polit bat esateagatik, baina nire eginbeharra ez da hori polita agertzea, nire sorkuntza erakustea baizik, ez neure burua. Egia da nire kasuan oso ikusgai nagoela eta hori 25 urte hauetan gainean eraman dudan oso zama latza izan da.

J.O.: Gainera, irudi fuerte bat proiektatzen duzu, emakumeengan hain ohikoa ez dena. Uste dut, gainera, rol hori nahita hartzen dugula. Publiko aurrean agertzea ez da erraza eta mutilak beharbada horretara ohituago daude, hala hezi dituztelako, baina gu beti hezi gaituzte bigarren plano batean egoteko, periferian. Besteak zaintzeko, ez zaintzeko hainbeste gu. Orduan, bat-batean demaseko indar bat proiekt-

“

“Helmugak izan ditzakegu, baina inoiz ahaztu gabe egiten dugun bide hori ezinbestekoa dela”

‘Bidea Da Helmuga’ kaleratu du Kokeinek. Bidez gozatzea izan duzue helburu?

Uste dut hori izan behar dela helburu finkoa. Helmugak izan ditzakegu eta nora heldu nahi dugun tokira ilusioz begiratzea ondo dago, baina inoiz ahaztu gabe egiten dugun bide hori ezinbestekoa dela eta horretaz gozatu, landu, mimatu eta batzuetan sufritu behar dugula. Disko berriarekin maiteminduta nago eta toki guztietatik bidearen inguruko gauzak eta hausnarketak iristen ari zaizkidala iruditzen zait (barreak).

ZALOA URAIN

”

tatzen duzunean, nahiz eta gero erreala ez izan, hori ere epaitu egiten da.

Z.U.: Niretzat zama latza da. Atzera begira, agian bai proiektatu dut pertsona indartsu baten irudia. Hori bai, gero zera esan didate: “Ez zara horrelakoa”. Ez dakit ogro bat naizela uste duten edo. Ez naiz ogro bat, baina indartsua banaiz. Zein puntutara arte izan den autosegurtasuna lortzeko jarrera bat? Ez dakit, baina egia da urte askotan oso gogorra egin zaidala. Nire gogoan atzean agertzea eta inork ez ikustea zen. Abesteaz aparte, nire itxura epaitzen zen, edo nire izaera momenturen batean. Eskerrak urteekin gauzak ikasten diren eta norberak bere buruarekin bakeak egiten dituen. Orain momentuan, zentzu horretan bake pixka bat daukat neure buruarekin eta pixka bat paso egiten dut, baina oraindik ere emakumeok horrelako gauzak entzuten ditugu eta, tamalez, entzungo ditugu.

Belaunaldi berriek horrelako egoerak bizitzen jarraituko dutela uste duzue?

Z.U.: Biok antzeko adineko alabak ditugu, ezta? Nire esperantza da atzetik datozen belaunaldi berriek



beste modu ezberdin batean hartzea hau guztia. Horri begira egoten naiz: alde batetik, euren irudia eta emakume zentzua zaintzeko nahia dago eta, aldi berean, ez edukitzea zamarik edo komentatzen ari garen etiketarik.

J.O.: Gure alabek gurekin alderatuta duten abantaila bat da guk genituenak baino ispilu gehiago dituztela. Arlo ezberdinetako emakumezko erreferenteak dituzte eta hori asko da. Badute non begiratu. Eskubidea eta aukera edukitzeaz gain, gogoan edukitzea beharrezkoa da erreferenteak izatea, hau da, emakume bat ez dakit nora iritsi dela edo zerbait lortu duela ikustea. Gu hasi ginenean, orain dela ia 30 urte, oso gutxi zeuden. Nazioarte mailan tira, baina Euskal Herrian, musikan eta literaturan, zenbat emakume zegoen?

Z.U.: Egon, beharbada batzuk egongo ziren, baina asko eta asko etxean sartuta eta ez oholtza gainean. Eta berdin, egongo ziren idatzi bai baina publikatzen ez zutenak ere.

J.O.: Ez naiz oso datu zalea, baina batzuetan tesuingurua ulertzen laguntzen dute. 1982.urte inguru-



ruan, Euskal Idazleen Elkarteak sortu zenean, idazleen %9 bakarrik zen emakumezkoa eta gaur egun %36 inguru da. Oraindik ez gara erdira ere iristen. Egia da 2020tik hona bazkideak diren idazleen %50 emakumezkoak direla. Poliki-poliki aldatzen doan zerbait da. Niretzat garrantzitsua da emakume hauen ahotsak indartsuak direla, zeresana dutela, eta sorkuntza mailan gauza eder eta on asko egiten ari direla. Hori ikaragarritzko erreferentzia da orain hazten dauden horientzat.

Z.U.: Lortu dugun gauzarik onena eta indartsuena plazaratzen hastea da. Indartsu sentitzea eta “nirea zergatik ezin da beste honek egiten duena bezain ona izan?” pentsatzea. Etxean hori egin dugun zalantzarik ez dut, baina plazaratzea beste gauza bat da. Horrela, gazteei erreferente bezala pentsarazi ahal izan diegu. Orain dela gutxi Zea Maysekin ‘Elektrizitatea’ abestiaren bertsio berria abesteko aukera izan dut, eta zeinen polita izan den hain adin eta estilo ezberdinetako emakume abeslariarekin elkartzea sentsazio eta energia berdinak sentituz. Hor jarri da agerian musikan gauden emakumeok zenbat

gauza egiten ditugun. Geratzen zaiguna plazaratzea da, baina plazaratu ez bakarrik emakumeak izateagatik, baizik eta egiten dugun lanarengatik.

Inoiz izan duzue kultura arloko ibilbidea amaitzeko gogoia?

Z.U.: Zortez, ez. Taldekideekin oso zorteduna izan naiz beti eta hor babeska sentitu dut. Ez da babeska behar izan dudalako, baizik eta talde moduan zerbait indartsuak sortu dugulako. Espero dut eurek ere niganik babes hori sentitzea. Momenturen batean pentsatu izan dut agian egunen batean ez dudala edukiko hain indartsua edo dena delakoa izateko gogoia, batzuetan igortzen dudana irudia ez baitator bat sentitzen dudanarekin. Agian indartsua eman dezaket, baina batzuetan goxo-goxo egon nahi dut. Momentu horietan sentitu izan dut hau guztia larregi dela niretzat, baina bestela ezetz esango nuke.

J.O.: Musika taldeen kasuan, aipatu duzun babes hori oso garrantzitsua dela uste dut. Konplizeak edukitzea. Lan horretan jarraitzeko gogoia eta energia ematen dizu. Idazle izatea oso ezberdina da. Bakarkako lana da. Orain sare gehiago dago,



sare sozialen bitartez elkar ezagutzeko aukera gehiago dago, baina nire sasoian ez zegoen horrelakorik eta nire ibilbidea oso bakartia izan da. Bakardadeak pisatzen du. Pentsa: emakumea, gaztea (orain jada ez naiz hain gaztea), bakardadea eta askotan egurra ematen dizutela sentitzea. Behin baino gehiagotan pentsatu dut idazten jarraitzea, baina niretzat bakarrik. Publikatzea, proiektu bat defendatu beharra eta nolabaiteko irudi bat proiektatu behar izatea... Hori egiteko energia falta izan zait noizbait, nekeza da. Beste alde batetik, barrenean dut sorkuntzarekiko behar natural bat eta beste guztia onartu egiten dut, mamu hori tarteka agertu arren.

Zertarako sortzen duzue?

J.O.: Ez dut esango sortzeak sendatu egiten duenik, baina bai uste dut gauza asko ulertzen eta kanpora ateratzen laguntzen duela. Bolada batean ezer sortu gabe egoten banaiz, izaeran eragiten dit. Zitalago nago. Gero, egoera desblokeatzen denean, automatikoki hobeto sentitzen naiz. Beharbada horregatik sortzen dugu, badelako era bat katarsi moduko bat egiteko eta musikaren edo letren bitartez gauzak kanpora ateratzeko.

Z.U.: Niri, adibidez, abestien letrak idazteak asko balio dit barruak askatzeko. Zentzu horretan gauza

bitxia gertatzen zait. Disko berria kaleratu dugu berriki eta abesti batzuk entzun ditudanean orain konturatzen naiz gehiago kantua idatzi nuenean zer pentsatzen ari nintzen. Gauza horiek deskolokatu egiten naute: nola bota nuen hori eta zein puntutara arte ez nintzen kontziente hori botatzen ari nintzela? Orain bertan sortzea ezinbesteko gauza bat da niretzat. Esan duzun bezala, ez badut sortzen, igarri egiten zait.

Nola bizi duzue zuen sorkuntzen hartzaileekin duzuen harremana?

J.O.: Idazleok ez ditugu kontzertuak eskaintzen, baina gure boloak eskoletan egiten ditugun saioak izaten direla esan ohi dut. Saio horietatik demaseko txutearekin irtetzen naiz, irakurlearen maitasuna jasotzen duzulako nolabait esatearren. Estimaten dute zu bertara joatea, zu ezagutzea, liburutik gustatu zaiena eta gustatu ez zaiena partekatzea... Oso aberasgarria da.

Z.U.: Imajinatzen dut adrenalina puntu bat dagoela hor. Batzuetan zaila izaten da hortik jaistea! Niri gertatu izan zait kontzertu indartsu baten ostean taupadak jaisten saiatzea eta ezin. Gero, biharamun emozionala edukitzen dut. Kontzertuan bota eta sentitu duzun guztiarekin indarra hartzen duzu eta, gero, biharamun hori dator.



J.O.: Ikusle bezala ere, kontzertu indartsu batera joan naizenean oso ohikoa da nik hori sentitu izan badut, musikariek zer sentituko duten pentsatzea. Demaseko txutea imajinatzen dut, baina gero hori kudeatzen jakin behar da.

Z.U.: Sortzea gustatzen zaigu, baina ez gureztat bakarrik, jendeari erakustea ere gustatzen zaigu-eta. Horrek gero prezio bat du: industrian murgiltzea. Ezetz esaten duenak, gezurra dio. Etxean abesten eta jotzen pozik egongo banintz, primeran, baina nik hartu dut egiten dudana azalertzeko erabakia eta jendearengana iristeko gogo horretan prezio batzuk ordaintzen ditut. Hori bai, bueltan demaseko erantzuna jasotzen dut. Horrek guztiak oso bizirik sentiarazten nau. Eguneroko gauzekin aurrera eta atzera gabiltza, eta kontzertu batean publikoarekin hartumana sortzen denean oso bizirik sentitzen naiz. Momentuaz gozatzen dut.

Nola kudeatzen duzue sorkuntzaren eta kultur-industriaren eskakizunen arteko oreka hori?

J.O.: Alaba jaio zenetik idaztetik bizitzeko erabakia hartu nuen eta profesionala naiz. Horrek disziplina ekarri dit. Kalitatezko denbora sorkuntzari eskaini ahal diot orain, ez lehen bezala, beste lan bat nuen-eta. Aldaketa ona izan da, baina egia da batzuetan presioa sentitu dudala. Adibidez, ea bi urtean behin,

“Bideari eustea eta irautea garrantzitsua eta arrakastatsua dela uste dut”

‘Arrakasta’ da zure azken lana. Zein da zure ibilbideko arrakastarik handiena?

Oso harro nago eta uste dut arrakastatsua dela bideari eustea, hor irautea eta parte sentitzea. Batzuetan erraza izan daiteke nekatuta zaudela esatea eta beste gauza bat egiten hastea, baina beste alde batetik badago zerbait sorkuntzara lotzen zaituena eta pozik nago neure buruari erakutsi diodalako gai naizela. Hori garrantzitsua eta arrakastatsua da niretzat.

JASONE OSORO



gutxienez, liburu bat ateratzen dudan, nahiz eta liburuen salmentaz bakarrik ez bizi eta beste gauza batzuk egin izan. Dena dela, horrela martxan zaude, eta irudimenak eta sormenak akzioa behar dute. Hori ere entrenatu egiten da eta, zenbat eta gehiago sortu, orduan eta aktiboago zaude. Sorkuntzak kalitatezko denbora eta lana behar du. Toki batera edo bestera iristearen edo ez iristearen arteko aldea. Horra iristeko egiten den lana izaten da. Lanik egin gabe, ez da ezer lortzen.

Z.U.: Nik ez dut horrenbesteko zorterik, ez naiz musikari izatetik bizi. Nahiko nuke, baina ez, beste lan bat daukat eta gustura egiten dut gainera. Sarritan komentatu dut hori taldekideekin, lagunekin eta musikaz bizi diren batzuekin. Batzuetan bai sentitu izan dut bigarren mailako musikaria naizela. Azkenean, denbora gehiena beste lan bati eskaintzen diot eta bizitzeko behar dudun dirua ez da musikatik iristen. Hori bai, musikaz bizi direnek beti esan didate hori burutik kentzeko. Dena dela, bere alde onak ere baditu. Esan duzun bezala, inspirazioa ez da bat-batean etortzen. Gogoratzen dut pandemian Miren Narbaiza musikari eta lagunak esaten zidala sasoi aproposa zela bakarkako diskoa ateratzeko, baina nik esaten nion justu orduan, egoera horretan, ez zitzaidala iriteten. Gauza beltz baino beltzagoak iriteten zitzaizkidan bakarrik. Banuen denbora, baina presio horrek

ez zidan lagatzen. Presioa berez ez da txarra, martxan eta aktibo jarri ahal dizu, baina nire kasuan, musikaz bizi ez naizenez, ez dut presio hori sentitzen. Beraz, Kokeinekin egiten duguna horrela sentitzen dugulako egiten dugu.

J.O.: Izaera kontua ere bada. Inoiz ez nuke esango sorkuntzatik bizi den norbait hortik bizi ez den beste bat baino idazleago edo musikariago denik. Are gehiago, batzuek sorkuntza erromantizatuta dute eta pentsatu izan dut batzuentzat sorkuntzatik bizitzea kalterako zela. Dirua tartean sartzen baldin bada, kalterako izango balitz bezala. Bakoitzak ahal eta nahi duena egiten du, eta dena dago ondo.

Laburrean

Liburu bat?

J.O.: 'Termita', Garazi Albizuarena.

Z.U.: Anariren 'Gari eta goroldiozko' dut irakurtzeko.

Disko bat?

J.O.: 'Ilunpean jai duzu', Txoteko Ezpata.

Z.U.: Nirea, ezin dut besterik esan orain.

Zer eskatu diozue Mari Domingiri?

J.O.: Inspirazioa.

Z.U.: Sorpresa.



Urteroko bidetik, Astelenak hiru jaialdi haundi hartuko ditu Gabon sasoiari

Pilotazaleek bikain erantzun izaten duten sasoiaren izaten denez, Aspegure herriko pilota enpresak urteroko ohiko hiru jaialdi handiei eutsiko die oraingoan ere: abenduaren 25ean izango da lehenengoa, urtarrilaren 1ean bigarrena eta Erregeen egunean hirugarrena. Hiruretan, jakina, jokoan dagoen 1. Mailako binakako txapelketaren barruko norgehiagokak izango dira, jaialdi bakoitzeko partidu nagusiak. Betikoari jarraituz, jaialdi guztiak 17:00etan abiatuko dira. Hilaren 25ekoan, partidu nagusian Ezkurdia-Rezusta eta Artola-Mariezurrena bikoteek neurtuko di-

tuzte indarrak. Aurretik, 2. Mailako txapelketako partiduan, Dario-Gabirondo eta Larrazabal-Salaberri II bikoteen artekoa ikusi ahal izango da. Urtea hasteko, bestalde, Altuna-Aranguren eta Jaka-Imaz bikoteen artekoa izango du zaletuen arreta; euren aurretik jokatu dute Egiguren V-Bikuña eta Zubizarreta III-Morgaetxebarria 2. Mailako txapelketaren barruan. Errege egunean, bestalde, Egiguren V-Bikuña eta Salaberria-Gaskue daude iragarrita lehenengo partiduan, eta Artola-Mariezurrena eta Laso-Iztueta bikoteek neurtuko dituzte indarrak bigarrenean.

Bigarren itzulia hasiko dute futbol-zaletuan

Behin lehenengo itzulia amaituta, Malape Taberna dago sailkapenaren gorenean 19 punturekin, sei partidu irabazi eta berdindu eta galdutako banarekin. 17 puntu ditu Garajes Garcia bigarren sailkatuak, 15 Xania Taberna hirugarrenak, 13rekin dago BOJ eta 12rekin Bar Marem. Sailkapen erdikaldetik behera, Kalaka Buenos Aires (9 puntu), Adahi Etxegi (7), Limpie-

za Rueda (5) eta azken postuan Baserri (2) daude. Orain arte partidu gehien irabazi duen taldea liderra da eta gutxien galduta hirukote bat dago, lehen hiru sailkatuek osatutakoa. Golen kontuari eutsiz, Malape (27rekin) eta Xania (25) nabarmendu dira, eta gutxien hartutakoak ere aipatutako biak dira, baina alderantzizko ordenean: Xaniak sei jaso ditu eta Malapek zazpi.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Granada (bihar, 14:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Arenas - EIBAR B (bihar, 18:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Aretxabaleta (etzi, 15:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR C - Añorga B (atzo, 19:45)

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Zumaiako B (bihar, 18:30)

Ordizia - EIBARTARRAK (bihar, 15:30)

Erregionaleko 1. Maila

URKI B - Elgoibar B (bihar, 16:00)

Ohorezko Jubenil Maila

EIBAR - Logroñes (bihar, 12:45)

Jubenilen Nazional Liga

EIBAR B - Getxo (etzi, 12:30)

Kadeteen Euskal Liga

EIBAR - Real Sociedad (bihar, 10:30)

FUTBOL-ZALETUA

• Limpieza Rueda - Malape (bihar, 09:00)

• Xania - Garajes Garcia (bihar, 10:30)

• Baserri - BOJ (bihar, 10:30)

• Bar Marem - Kalaka B. Aires (bihar, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Egintza - EIBARTARRAK (bihar, 15:00)

ESKUBALDIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

Beti Onak - MEK EIBAR (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Trapagaran (bihar, 18:30)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

Ereintza - MEK EIBAR B (bihar, 15:00)

Gizonezkoen Jubenilen Euskadiko Liga

Zumaia Pulpo - MEK EIBAR (bihar, 16:00)

Emakumezko Jubenilen Euskadiko Liga

San Adrian - MEK EIBAR (bihar, 11:30)

ERRUGBIA

Emakumezkoen Ohorezko B Maila

Flor Escocia Burgos - EIBAR (bihar, 16:00)

Gizonezkoen Euskadiko Erregionala

EIBAR - Kanpanzar Arrasate (bihar, 12:00)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Nazional Maila

Malaga - URBAT (etzi, 16:00)

Jubeniletako Euskal Herriko Liga

URBAT - Larreina (bihar, 14:30)

Infantil mistoetako Euskal Herriko Liga

URBAT - Larreina (bihar, 15:45)

PILOTA

Jaialdia Astelenan (25ean, 17:00)

• Dario-Gabirondo vs Larrazabal-Salaberri

• Ezkurdia-Rezusta vs Artola-Mariezurrena

Julian Erasok OCETAko presidentetza laga du zazpi urteren ondoren

Zazpi urte baino gehiago eman ondoren, Julian Erasok OCETAko (Organización Ciclista Euskadi - Txirrindulari Elkarte) presidentetza laga du, eta bere tokia orain arte aldamenean izan duen Javier Riaño Itzulia Basque Countryko eta Donostiako Klasikoko zuzendari nagusiak hartuko du. Erasok oinarritzko zutabea izan da Euskadiko txirrindularitzaren garapenean, baita ekitaldi esanguratsuen antolatetako funtsezko eragilea ere; esate baterako, Itzulia Basque Country, EuskalBizikleta, Itzulia Women eta Donostiako Klasikoa.

Izan ere, nazioarteko egutegian duten ospe handia sendotu du azken urte hauetan.

Kargua utzi arren, Julian Erasok ez du txirrindularitzaren mundua alde batera utziko. Bere esperientzia eta jakintza baliabide balioetsuak izango dira beti, OCETAren lan egiten jarraituko duelako, baita kirol horrekin lotutako beste proiektu batzuetan ere. Bere lekuko hartu duen Javier Riañok gaur egungo proiektuak indartzen eta etorkizuneko erronkei aurre egiten jarraitzeko erronka horretan izango du Erasoren laguntza ere.



Riaño eta Erasok, artxiboko irudian.



Jaso dute Urbateko Sanandresetako otarra

San Andres egunean zozketatutako otarra Raquel De Diegok irabazi zuen. 2.224 zenbakiaren jabeak Urbateko waterpolo klubeko Iñigo Kortabarria zuzendaritzako kidearen eskutik jaso zuen saria.

Mek Eibar Eskubaloiko talde nagusiek aurkari zailak menperatu zituzten

Biak garaile izan ziren azken jardunaldian: 1. Nazional Mailako gizonezkoen taldeak 31-29 irabazi zion Romo indartsuari Ipurua kiroldegian, eta Ohorezko Zilarrezko emakumezkoena 22-25 nagusitu zen Loyolaren kantxan. Lortutako emaitzekin, gizonezkoen taldeak zapatuko aurkariari hartzen dio aurre, hirugarren postuan kokatuz, eta emakumezkoenak sailkapeneko bi azkenak dagoeneko bost puntura lagatzen ditu.

Fernando Fernandezek zuzentzen duen taldea gol bakarraren abantailarekin joan zen aldageletara lehen zatiaren amaieran eta, bigarren zati parekatuari amaiera emanez, Alexen gol batek eta Jonek azken minutuan egindako geldiketak bi puntuak Eibarren geratzea ekarri zuten. Azpimarratzekoa izan zen, aldi berean, Mikelek lortutako 13 golak.



Emakumezkoen taldeak ezustea eman zuten.

Andoni Garciak zuzentzen duen taldea, bestalde, sailkapeneko goialdean dagoen Loyolari irabazi zion partidu oso serioan, meritu handiko lorpena eibartarrentzat kontuan hartuta kantxa horretan bakarrik Beti Onak bigarren sailkatuak irabazi zuela ordura arte.

Gabontraila egingo dute martitzen goizaldean

Urteroko bidetik, datorren martitzenean, hilak 24, Gabontrailaren 10. edizioa egingo dute, Kalamua Korrikalari Taldekoek antolatuta. Deporreko mendi batzordeko talde horren esku izaten dira urteko trail guztiak eta oraingoko hau ere Deporreko egoitzaren aurretik abiatuko da, 08:30ean. Ibilbidean 14'7 kilometroko distantzia osatuko dute eta igoera metatua 719 metrokoa izango da, ohiko bidetik: "Santa Kurutz, Kalamua, Parlamentuan brindisa eta jaitzi". Hori bai, aldaketa txiki bat izango du



martitzenekoak: Akondia baserri-tik Akondiako lepora lehengo bide zaharretik egingo dute, "orain dela gutxi garbitu eta berreskuratu delako". Parte-hartzaileei edalontzi berrerabilgarria eramatea eskatzen diete antolatzaileek, "Parlamentuan kaba hartzeko". Urteari agur egiteko ez dago aukera hobeagorik!

Eibar Rugby Taldea eta Artesanos Juantxo lidergoan

Gure herriko talde bi horiek euren ligetako gorenean daude urtea amaitu behar dugun honetan. Errugbiko Ohorezko B Mailan jokatzen duen **Eibar Rugby** lehia gogorra izan zuen azken jardunaldian Unben, baina Turia - Les Abellesi 15-12 irabazita, euren arteko berdinketa apurtu eta bakarrik geratu da sailkapenean. Asteburu honetan Burgosen izango du partidua, Unben nagusitasunez menperatu zuen Flor de Escociaren aurka.



Artesanos Juantxo Eibar Saskibaloiko lehen taldea, bestalde, bakarrik geratu da Lurraldeko 2. Mailako sailkapeneko buruan, azken jardunaldian Modelos Modelberri 53-59 garaitu ondoren. Garaipen bakarrera ditu beste hiru talde.



Deporreko mendikoen urteko azken irteerak

Aurtengo mendiko egutegia kantuen artean amaitu zuten Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordekoek, bertako tabernan bazkaldu ondoren. Aurretik urteko irteera gertukoena osatu zuten, bazkaldu aurretik poteo txiki bat egiteko tartearekin. Hurrengo egunean, domekan, ikasturteko haurren 3. irteera egin zuten, Flyscha ikusteko aprobeztatuz.



JÜRGEN LANDA ETA JON ALONSO • ETBko Ztanda musika saioko lehiakideak

“Esperientzia hau elkarrekin bizitzea gozada bat izan da”

Eibarko etorkizun handiko bi talentuk, Jon Alonsok eta Jürgen Landak, publikoaren eta epaileen bihotza bereganatu dute ETBko ZTANDA musikako *talent show* ezagunean, eta dagoeneko zeresana ematen ari den arrakasta lortu dute. Biak iritsi dira bigarren edizio honetako final handira, eta euretako bat irabazle izateko zorian egon da. ZTANDako esperientziarekin oso pozik daude eta oso eskertuta eibartarren aldetik jaso duten babesagatik.

Testua **ANA AIZPURUA**
Bideoa **YANIRE SAGREDO**



Jürgenek eta Jonek programara aurkeztea erabaki zuten, euren estilo eta talentu propioa arakatu nahian. Lehiaketan zehar, eibartarrak euren benetakotasunagatik eta interpretazio bakoitzean emozioak transmititzeko izan duten gaitasunagatik nabarmendu dira, epaimahaiaren eta publikoaren aintzatespena lortuz. Argi utzi dute euren talentua lorpen handietara bideratuta dagoela.

Zergatik erabaki zenuten ZTANDAn parte hartzea? Espero zenuten aukeratuak izatea? Eta espero zenuen azken emaitza?

JÜRGEN: Ni aurreko urtean ere aurkeztu nintzen, eta eskerrak ez ninduten hartu (jajaja), aurtengoa oso berezia izan da-eta. Mimo handia eta baliabide gehiago jarri dira bigarren edizio honetan. Kalitate handiko lana egin da. 13 lehiakide izan gara eta ez genuen espero programan biok sartzea: bi eibartar, bi mutil... Ezinezkoa iruditzen zitzaigun. Orain dela 10 urte ezagutzen dugu elkar. Esperientzia hau elkarrekin bizitzea gozada bat zan da. Ondo konektatu dugu, feeling berdina izan dugu lehiakide eta lantaldeko batzuekin, kotxe bidaiak elkarrekin egin ditugu... Finalari dagokionez, uste dut merezi nuela azken errondako hiru horien artean egotea (Arima, Leila eta Jon geratu ziren), baina atarian geratu nintzen. Azken hiru finalisten aktuazioak ikusita, nik benetan uste nuen Jonek irabazi behar zuela,

ez bakarrik finala ikusita, baizik eta ibilbide osoa kontuan hartuta ere.

JON: Niretzako lehen aldia izan da. Iaz etxetik ikusi nuen, Julien Leturiondo eibartarrak parte hartu zuelako. Animatu egin nintzen Julenek kontatutakoagatik eta Koro Gaztean gurekin ibilitako beste kide batzuk ere aurkezten zirelako. Espektatiba barik joan nintzen. Bi egun lehenago eman nuen izena castingean. Azkeneko castingean 20 lagun egon ginen eta oso gogorra izan zen, ordu asko eman genituen han, eta biak sartzea kristona izan zen. Momentu hartan ikusi genuen zetorrena, telebistak ekartzen duen lanketa sakona. Gure artean oso ondo ulertu gara eta finalaurrekoan asko sufritu nuen, Jürgen finalean egotea nahi nuela. Eta lortu zuen. Finalari buruz, esango dut nik argi neukala Jürgen izan zela finaleko lehenengo errondako onena eta merezi zuela bigarren errondara pasatzeko txartela. Hori ez zenean gertatu, finaleko ideia apurto egin zitzaidan. Finalean egin nituen bi aktuazioekin oso gustura geratu nintzen, baina azkenean hirugarren lekua eman zidaten eta, egia esan, gehiago espero nuen. **Bi hilabete pasatxoan 10 gala izan dira. Oso bizia. Zenbat egunetan joaten zineten bertara?**

JON eta JÜRGEN: Martitzenetan Galdakaora joaten ginen entseguak egitera, produkzio-etxeak han dituen lokaletara. Gero, eguazten arratsaldean Miramonera joaten ginen, argiztapena, platoaren kokapena, arro-



Jon Alonso eta Jürgen Landa Ztanda telebista saioko lehiakide eibartarrak gure bulegoetan egon dira, azken asteetan bizi izan duten esperientzia kontatzeko.

pak... probatzera. Eta eguenetan grabazio eguna izaten zen. Programa Miramongo platorik handiengan egin da. Platoa huts-hutsik eta berri-berria ikusi genuen lehen eguna inpaktantea izan zen. Eta ez hori bakarrik, jende eta departamentu pila bat egon da saioan lan egiten: atrezzokoak, jantzitegikoak, teknikariak...

Eta zelan gestionatzen da hori guztia 21 eta 24 urterekin? Eta ingurukoak?

JÜRGEN: Hasieran, gaizki. Hainbeste emozio sentitzen dira, kudeatzen oso zaila dela. Gero ohitu egiten zara. Hirugarren edo laugarren galan geundenean epaimahaikideek zer gertatzen zitzagun galdetu ziguten lehiakideoi. Inflexio-puntu bat eduki genuen, eta hortik aurrera gestionatzen ikasi genuen. Tentsioa oso handia izaten zen, eta hori galak amaitzen zirenean ikusten zen, emozio guztiak bat-batean agertzen zirenean. Negar asko egin dugu. Astero bateron bat gaixotu egiten zen, eta txarto zaudenean abesti animatu bat egitea oso zaila egiten da. Esperientzia honek erakutsi digu jendearen aurrean emozioak kudeatzea ez dela batere erraza. Bestetik, familiek eta lagunek asko jasan dute.

“Esperientzia honek erakutsi digu jendearen aurrean emozioak kudeatzea ez dela bat ere erraza”

Ez diegu behar beste arreta eskaini eta nabaritu dute. **JON:** Hori da, hasieran gaizki eraman genuen denok, baina motibazio handia zegoen, emozio handia. Lan-keta handia izan da. Hor gertatu dena zeozer idilikoa izan da, ez da erreala izan. Oso intentsoa izan da dena. 13 pertsona desberdin, bakoitza bere izakera eta maniekin, eta azken batean lehiaketa batean... Familia eta lagunak ia ez ditugu ikusi, baina ez da izan denbora faltagatik, baizik eta libre genuen denbora lo egiteko, unibertsitateko gauzak egiteko edo etxean entseatzeko erabili dugulako. Askotan kalera irtetera behartu dut neure burua. Eta, aldi berean, beste lehiakideekin eta programako lantaldearekin harremanetan egoteko



Jürgen eta Jon ZTANDAKo familiarekin: lehiakideak, zuzendaria eta lantaldea.



Koroko lagunak beti animoak eta babesa ematen.

beharra sentitu dut, azken batean denok elkarrekin bizi izan dugun esperientzia izan delako.

Gauza bat da abestia ikastea eta norberarena egitea, eta horretara ohituta zaudete, baina beste bat interpretazioa eta dantza. Primerako dantzariak zaretela erakutsi duzue eta hori sorpresa handia izan da.

JON eta JÜRGEN: Abestia barixakuan ematen ziguten eta martitzenerako dena ikasita izan behar genuen, dantza ere bai. Koreografiaren bideoa asteburuan bidaltzen ziguten. Gainera gauza bat da entsegu-gelan nola egiten duzun, eta beste bat platoan nola adaptatzen duzun hori guztia; hor sartzen dira kamarak, atrezoko gauzak, dantzariak... Eguazten iluntzera arte gauzak etengabe moldatzen joaten ziren, eta ez genuen ezer argi. Eguen goizean bai, orduan egiten genuen eguen arratsaldean grabatuko zena.

Laguntza handia izan duzuela sentitu duzue?

JON eta JÜRGEN: Adrian Garcia de los Ojos kantu irakasleak eta, bereziki, Paula Bujanda eta Virginia Gonzalez koreografoek asko lagundu digute. Koreografoen lana azpimarratzen dugu, dantza ez zelako gure eremua, eta biok dantza asko egitea eskatzen zuten abestiak egin behar izan ditugulako. Erritmoa badaukagula erakutsi dugu. Dantzariekin ere oso harreman berezia sortu dugu. Galdakaon elkarrekin bazkaltzen genuen eta hori deskonexio puntu bat zen, gauzak partekatze-ko momentu bat. Terapeutikoa izaten zen. Lan arloan goitik beherako profesionalak dira. Gure ekarpenak asko baloratu dituzte: kantu oso ezagunak zirenean,

“Esne Beltzaren ‘Sueños de color’ egitea egokitu zitzaidanean nire burua kalean ikusi nuen. Baina lanean jarri nintzen eta galako irabazlea izan nintzen”

JÜRGEN LANDA

adibidez, norberaren bertsioa egitea oso zaila zen eta orduan edozein proposamen asko baloratzen zuten. Gu bion kasuan asko baloratu dute ia edozein moldaketara zabalik egon garela. Lan asko egin dugu, konstanteak izan gara: bakoitzaren kantuaz aparte, astero taldeko abesti bat egin behar genuen. Eta, gainera, besteei koruak egin dizkiegu, ikusi zutelako erraztasuna genuela horretarako. Ainhoa Alcibar izan da programako zuzendaria, eta musikalitate pila bat izatez gain, guztion lanarekiko errespetu handia izan du. Ama moduko bat izan da guretzako, eta bere gertutasunari esker lortu du oholtza gainean denok gustura egotea.

Zer deskubritu duzue bi hilabete hauetan? Zer eman dizue ZTANDAK?

JÜRGEN: Programara iritsi nintzenean ezin nuen abestu begiak itxita izan barik, eta ez nintzen ezer mugitzen.



Jürgen bere lagunekin.



Etxekoak eta lagunak Jonekin.

Saioan denetik egin dut: lorazko ohe batean abestu dut, dantza mordoa egin dut... ZTANDAk hori erakutsi dit: ez nola edo zer egin, baizik eta egin ahal dudala. Geure buruaren inguruan ezagutzen ez genuen alderdi bat aurkitu dugu denok, eta hori oso polita izan da. Aste batetik bestera abestiekin hainbeste desberdintasun dagoenean, zure alderdi pertsonal asko landu behar dituzu. Bosgarren galan Esne Beltzaren "Sueños de color" egitea egokitu zitzaidanean nire burua kalean ikusi nuen. Baina lanean jarri nintzen eta galako irabazlea izan nintzen.

JON: Hori da, asko bilatu behar duzu zure barruan. Jürgenek abesti propioak ditu, bakarka gauzak egin ditu, baina ZTANDAr iritsi arte ni ez naiz guztiz bakarrik egon, beti izan dut Koru Gaztearen babesa. Lehenengo aldiz bakarrik eta lehenengo galan Benito Lertxundi! Nire asterik gogorrena izan zen. Esan behar dut programak balio izan didala nire burua abeslari bakarlarri moduan deskubritzeko.

Epaimahaikide bezala aritu dira Leire Martinez, Klara Mendizabal, Alex Sardui eta Beñat Rodrigo 'Kiliki Frexko'. Zelakoa izan da eurekin izan duzuen hartu-emanu?

JON eta JÜRGEN: Espero genuena baino hurbilagoak izan dira. Gure lana baloratzeaz gain, *back stage*an aholkuak ematera gerturatzen zitzaizkigun. Hala ere, batzuetan badirudi konfiantza bat badagoela, baina gero ez dago. Rol eta izaera finko bat daukate lehiaketan barruan, eta defendatu egin behar dute. Baina egia da oso gertukoak izan direla, eta hori asko baloratzen

“Lehenengo aldiz bakarrik eta lehenengo galan Benito Lertxundi! Programak balio izan dit nire burua abeslari bakarlarri moduan deskubritzeko”

JON ALONSO

da. Gertutasun handiena Klara Mendizabalekin igarri dugu, bera ere abesbatza mundutik datorrelako eta guk bizi izan dugun ibilbidea eta disziplina berarentzako gauza ezagunak direlako.

Gala guztietan platoa eibartarrez beteta egon da eta mila aldiz aipatu da gure herriaren izena.

JON eta JÜRGEN: Bai, bai, Eibar munduan jarri dugu (jajaja). Astero 50 pertsona inguru etorri dira Eibartik platora. Eta hori ordutegia oso konplikatu zela, eta grabazioa oso luzea. Indarra eta segurtasun handia eman digute. Gainera, gure jendea, batena eta bestearena, bateratu egin da. Eibarren denak ezagutzen gara, eta oso eskertuta gaude guregana gerturatu diren guztiei, esperientzia gurekin bizi izan dutenei eta aholkuak eta laguntza eman digutenei. Oso polita eta kriston aukera izan da. Eta estimulu eta bultzada handia musika munduan jarraitzeko.



Kultur, Guridik eta Ego-Gaineko Bacolekuk irabazi dute Gilda Lehiaketaren 9. edizioa

Epaimahaiak eman du IX. Gilda Lehiaketaren ebazpena. Gilda tradizional onenaren saria Ego-Gaineko Bacolekuk irabazi du aurten; gilda berritzaileenaren saria, berriz, Kultu tabernak, eta herritarrek emandako botoen arabera Guridiko gilda izan da onena. Epaimahaiak parte hartu duten hamabost tabernek aurkeztu dituzten gilden kalitatea goraiatu du aurten ere: “Oso maila ona izan du aurtengo edizioak ere; lehengaiak freskoak izan dira, kalitatezkoak, eta elabrorazio aldetik ere lan handia egon

da”. Bestalde, botoa eman duten herritarren artean bi lagunentzako asteburua zozketatu da eta Carmen Salaberria izan da irabazlea. Martitzenean jaso zituzten sariak euskara elkartearen egoitzan. Irabazleek jakinarazi dute luzatu egingo dutela gilda irabazleen salmenta eta datozen egunotan ere izango dela horiek dastatzeko aukera.

Euskeraz primeran! kanpainaren barruan antolatzen du ...eta kitto!-k gilda-lehiaketa, taberna-giroan ere euskararen erabilera bultzatzeko helburuarekin.

Pizza-tailerrean gustora jardun zuten familia berbalagunek

Joan den barixakuan pizza-tailerra antolatu zuen ...eta kitto!-k Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako familientzat. “Ortutik ahora” elkarteko Sergiok gidatuta, pizza osasungarriak egin zituzten gertuko produktuak erabiliz. Arratsalde-pasa polita igaro zuten familiek, giro euskaldunean.



Lepokoak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du ...eta kitto!-k

Hiru orduko saioa eskaini du Laura Albistegi bitxigileak Illunabarrian programaren barruan. Denbora tarte horretan pare bat lepoko egin zituen parte-hartzaile bakoitzak, kolore ezberdinetako bolatxoak, haria eta katetxoak erabiliz. Otsailean antolatuko du ...eta kitto!-k Illunabarriaren hurrengo saioa.



Kalean da urteko azkeneko Txikitto! aldizkaria

Abenduko alea jaso dute aste honetan Lehen Hezkuntzako ikasleek eskolan bertan. Urteko azkeneko alean ez dira hileroko atalak falta: denborapasak, txistekak, ipuina, bitxikeriak... Horrez gainera, Amaña herri-eskolako Amanda eta Alan amama-bilobarekin solasaldia izan dugu eta Urkizu eskolako ikasleekin neguko oporren inguruan jardun dugu.



BIDEOA ►

zarelako **g**ara

BIDEOA
IKUSTEKO



*Eibarko bi pertsonaia esanguratsu jarri ditugu elkarrekin, herriko alkateak izandakoak biak: **Aurora Baskaran** (PSE-EE) eta **Mikel Larrañaga** (EAJ). Aurora bi legealdi egon zen alkatetzan, 1987tik 1995era arte; Mikel, berriz, 1979tik 1983ra. Ideologikoki urrun egon arren, bada gai bat Aurora eta Mikel hurbiltzen dituen: euskararekiko maitasuna. Alkate zirenean eta orain, euskararen egoera nola bizi izan zuten eta duten galdetu diegu, eta hona hemen solasaldiak eman zuena.*

Egin zaitez bazkide!



Olentzeroren kantu kalejira martitzenean izango da

Aurten ere Olentzero etorriko zaigu Eibarrera bisitan, gauean etxerik etxe opariak banatzen hasi baino lehen. Martitzen goizean, 11:30ean hasiko da *Zatoz Olentzerorekin abestera!* kantu-kalejira, Urkizuko parkean. Olentzerorekin batera, jakina, Mari Domingi, Galtzagorri bihurriak eta beste lagun asko elkartuko dira, Untzagarainoko bidean kantuan joateko. Besteak beste, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren, Adolfo Jainagaren ikasleen, eta Eibarko Kantuzaleak eta Kaleetan Kantuz taldeen laguntza izango da ibilbide osoan zehar. Eta behin Untzagara ailegatuta, Olentzerok azken orduan idatzitako gutunak hartuko dizkie haurrei, udaletxeko patioan egingo dien harre-erakitaldian.



Esteban Orozen margolanak Ermuko Lobianon ikusgai

Aste honetan zabaldu du erakusketa Esteban Oroz Aizpun margolari eibartarrak Ermuko Lobiano Kultur gunean. Abenduaren 29ra arte egongo da ikusgai, lanegunetan 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara. Sarrera doakoa eta librea da.



Judash taldeak Coliseon aurkeztuko du lehen diskoa

Judas Argarate izateari laga eta gero, Judash izenarekin kaleratu duen lehen diskoa aurkeztuko du zuzenean taldeak, abenduaren 27an 19:00etatik aurrera Coliseo antzokian eskainiko duen kontzertuan. Markel Iraola, Ekaitz Vegas, Joseba Goñi eta Hodei Otegik osatzen duten laukoteak ilusio handia ipini dio lanari, eta orain etxean ezagutzera emateko irrikitan daude. Kontzerturako sarrerak 5 euro balio du eta aldezturik erosi daitezke, Coliseoko leihatilan astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era, edo bestela Kutxa-banken bitartez.



Mikel Estandiaren pintura erakusketa Topalekun

Arrate Kultur Elkarteko bazkidea den Mikel Estandiak *Begiraden eta ideien artean* izenburuko pintura erakusketa zabaldu du gaur Topalekun, eta hilaren 29ra arte egongo da ikusgai (25ean itxita egongo da). Bestalde, urteko azken kantu-saio irekia astelehenean izango da, 19:00etan.



Usartza Txistulari Taldearen Gabonetako kontzertua

Gabonak direla eta, Usartza Txistulari Taldeak kontzertu berezia prestatu du domekarako, 12:30ean Untzaga plazan. Eguraldiak laguntzen badu, kanpoan egingo dute, eta euria egingez gero, udaletxeko arkupeetan. Azken urteotako martxan, txistulariekin batera beste hainbat arituko dira: Unai Cabanzon (tronpeta), Iñaki Orbegozo (tronpa), Joseba Marin (tuba), Danel Montero (tronpeta), Alvaro Gomez (tronboia), Asier Rodriguez (perkusioa) eta J. B. Gisasola Musika Eskolako txistu ikasleak (Amaia Baglieto, Ainhoa Larrañaga, Peru Unamuno eta Oihenart Agirre). Enrique Montero zuzendariaren berbetan, “doinu herrikoiak, euskal Gabonetako kantuak, Europa eta Ameriketakoak... entzuteko aukera egongo da. Doinu alaiak izango dira”.



Gabonetarako bertso-saioa egingo da Zai-zoi tabernan

Abenduaren 27an egingo da Ez Dok 3. Gabonetako Bertso Saioa Bittor Sarasketa kaleko Zai-zoi tabernan, 19:00etan hasita. Hankamotxak Bertso Eskolarekin elkarlanean antolatutako saioan Gipuzkoako Txapelketako txapela jantzi berri duen Alaia Martin arituko da, Aritz Katarain eta Aitor Sarriegirekin batera. Gai-jartzailea Maialen Bergara izango da.



Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoaren ikuskizuna

Familia osoak gozatzeko moduko ikuskizunarekin etorriko dira Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak egunean, abenduaren 26an, Coliseo antzokira. Euskal antzerkigintzaren eta pailazokerien aitzindaria den taldeak 50 urte baino gehiago daramatza publikoaren barreak eragiten, antzokietan zein telebistan, eta *Pailazo* izeneko ikuskizuna aurkeztuko dute, 17:00etan hasita. Sarrerak 5 euro balio du.

Olentzero eta Mari Domingi kalejiran ibiliko dira Urki auzoan

Urkiko jai batzorde berriaren eskutik, aurtien Olentzero eta Mari Domingiren bisita jasoko dute Urki auzoan, astelehenean (hilak 23). Urki Kurutzekuatik abiatuko dira, 18:00etan, eta auzoko kaleetan zehar kalejiran ibiliko dira biak. Ondoren, 18:30ean, txokolata-jana egingo da Ceba tabernaren parean, 16. zenbakiko garajeetako aterpean. Gainera musika eta photocalla antolatutako dituzte eta, azken hau amaitzen denean, urdaiazpiko baten zozketa egingo dute (rifak euro bat balio du).




Coliseoaren Laguna txartela


Eibarko Udalak Coliseoaren Laguna txartela eskainiko du beste behin. Gogoratu dutenez, txartelari esker %30eko beherapena lortu daiteke Udalak antolatzen duen edozein ikuskizun edo kontzertutan. Gainera, zinema komertzialerako hobariak ere baditu. 2025eko txartel berria urtarrilaren 2tik aurrera eskatu ahal izango da Pegoran.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5	8				
2	1		8	9	4
6		5			
	6			9	
4	5		1	3	6
		6			5
			1		9
	3	4	7		5
				5	8
				6	7



soluzioa





soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA


6		3	2		8	5
		9				
2	4		5	1		
	7					
9	8	4	2	7		5
					8	
		6	9		3	1
				5		
6	2		7	4		8

**S
U
D
O
K
U**



**AURKITU
10
EZBERDINTASUNAK**

**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**



Abenduak 20 / 29

BARIXAKUA 20

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30

Eibart Gabonetako
20. artisau azoka. Untzaga.

TOBOGANA

17:00/21:00 Hour zein helduendako tobogana. Untzaga.

HITZALDIA

18:00 "Indarkeria instituzionala", Janire Ruiz de Gordejuela abokatuaren eskutik. Eta Blanca Tulleudaren ilustrazioen erakusketa zabalduko da. Ipuruako merkatu plaza.

DANTZA

20:00 Koa Dantzaren Gabonetako emanaldia. Errebal Plaza.

ZAPATUA 21

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30

Astelena Hour Parkea.
Astelena frontoia.

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30

Eibart Gabonetako
20. artisau azoka. Untzaga.

TOBOGANA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00

Hour zein helduendako tobogana. Untzaga.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia.

DOMEKA 22

ZUHAITZ LANDAKETA

09:30 Eibarko Baso Biziak elkartearen eskutik. Unbeko goiko aldean elkartuko dira, Sorginbasora joateko.

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30

Eibart Gabonetako
20. artisau azoka. Untzaga.

TOBOGANA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00

Hour zein helduendako tobogana. Untzaga.

GABON KONTZERTUA

12:30 Usartza Txistulari Taldearen Gabonetako kontzertua, metalen, perkusioaren eta Musika Eskolako txistu ikasleen parte-hartzearekin. Untzaga.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinak Ipuruan. Ipuru kiroldegia.

ASTELEHENA 23

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30

Eibart Gabonetako
20. artisau azoka. Untzaga.

TOBOGANA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00

Hour zein helduendako tobogana. Untzaga.

OLENTZERO URKIN

18:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Urki-Kurutzekuatik hasita, auzoko kaleetan zehar. **18:30** Txokolate-jana, musika, eta photocalla. Urki 16ko garajeen aterpeen (Cepa taberna).

OLENTZEROREN BISITA

18:00/20:00 Berarekin egon nahi duten haurrek gutuna eraman beharko dute. Beheko Tokia Gizarte Zentroa.

KANTU-SAIOA

19:00 Kantu saio irekia.

Arrate Kultur Elkartea.

MARTITZENA 24

GABONTRAIL

08:30 Gabontrail mendilasterketa, Kalamua Korrikalari Taldeak antolatuta. Irteera Klub Deportibotik.

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30

Eibart Gabonetako
20. artisau azoka. Untzaga.

OLENTZERO KALEJIRAN

11:30 "Zatoz Olentzerorekin abestera!", J.B. Gisasola Musika Eskola, Adolfo Jainagaren ikasleak, Eibarko Kantuzaleak eta Kaleetan Kantuz taldeen laguntzarekin. Urkizutik Untzagara. **12:30** Olentzerok umeen azken orduko eskutitzak jasoko ditu udaletxean.

EGUENA 26

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30

Astelena Hour Parkea.
Astelena frontoia.

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30

Eibart Gabonetako
20. artisau azoka. Untzaga.

TOBOGANA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00

Hour zein helduendako tobogana. Untzaga.

PAILAZOAK

17:00 "Pailazo", Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoan ikuskizuna, euskaraz. 5 euro. Coliseo antzokia.

BARIXAKUA 27

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30

Astelena Hour Parkea.
Astelena frontoia.

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30

Eibart Gabonetako
20. artisau azoka. Untzaga.

TOBOGANA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00

Hour zein helduendako tobogana. Untzaga.

MUSIKA

17:00 Judash taldearen kontzertua, izen bereko lehen diskoa aurkezteko. 5 euro. Coliseo antzokia.

BERTSOAK

17:00 Ez Dok 3. Gabonetako Bertso Saioa, Alaia Martin, Araitz Katarain eta Aitor Sarriegi. Gai-jartzailea: Maialen Bergara. Zai-Zoi.

ZAPATUA 28

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30

Astelena Hour Parkea.
Astelena frontoia.

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30

Eibart Gabonetako
20. artisau azoka. Untzaga.

TOBOGANA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00

Hour zein helduendako tobogana. Untzaga.

AKUARELA TAILERRA

11:00/14:00 Akuarela tailerra, doan, Santi Entrenaren eskutik. Ipuruako merkatu plaza.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **21ean:** 19:45, 22:30
- **22an:** 12:00
- **23an:** 19:30

“¿Es el enemigo?”
KOMEDIA



2024/Espainia / 100'
Zuzendaria: Alexis Morante
Protagonista: Oscar Lasarte,
Carlos Cuevas, Natalia de Molina
Drama / Biografikoa

2 ARETOA

- **21ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **22an:** 17:00, 20:00
- **23an:** 19:30

“Emilia Pérez”
DRAMA



2024/Frantzia / 132'
Zuzendaria: Jacques Audiard
Protagonista: Karla Sofia Gascon,
Zoe Saldana, Selena Gomez
Musika / Transexualitatea

ANTZOKIA

- **21ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **22an:** 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- **23an:** 19:30

“Un lío de millones”
KOMEDIA



2024/Espainia / 91'
Zuzendaria: Susan Béjar
Aktoreak: Antonio Resines,
Gracia Olayo, Clara Lago
Zine familiarra / Remakea

ANTZOKIA

- **21ean:** 17:00
- **22an:** 17:00

“Niko. Aurora Boreal”
ANIMAZIOA



2024/Finlandia / 86'
Zuzendaria: Kari Juusonen
Gabonak / Sekuela / Abenturak



**Doroteo
Urkia Lasuen**
2024/12/13

Gure atsekabea
eta elkartasuna
adierazi nahi diegu
hainbeste eman
zigunaren senide
eta lagunei.



eta kitto!
EUSKALDUN ERKIDETZEA



**Mikel
Fernandez Hernandez**
5. URTEURRENA
2019/12/21

“Beti eruango
dogu zure
irribarria gure
bihotzetan”



- ZURE LAGUNAK -

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **IZEI!!!** Hillaren 22xan 5 urte beteko dozuz eta. Gure loterixa berezixa!! Musu haundi bat etxeko danon partez!!



Zorionak, **MAYA**, atzo 8 urtetxo bete zenduaz eta! Oso harro gaude zutaz. Asko maitte zaittugun etxekuen partez!



Zorionak, **LUR**, hillaren 24xan 8 urte beteko dozuz eta. Patxo bat famelixaren eta, batez be, Naike, Oinatz eta Bernateren partez.



Zorionak, **DONATA**, hillaren 16xan urtiak bete zenduaz eta. Besarkada famelixaren eta, batez be, Unaxen partez.



Zorionak, **NEREA**, hillaren 19xan urtiak egin zenduaz eta. Musu haundi bat famelixaren partetik.



Zorionak, **JON**, domekan 6 urte beteko dozuz eta! Laztan haundi bat etxekuen eta, batez be, Oierren partez.



Zorionak, **NORA!!** Gaur 8 urte... neska haundi!! Disfrutau zure eguna!! Milla patxo famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JAKES**, hillaren 27xan 2 urtetxo beteko dozuz eta! Desiatzen gagoz zure kontu guztiak entzuteko.



Zorionak, **LEA!!** Hillaren 18xan 6 urte bete dozuz eta!! Jarraitu hain alaixa izaten! Musu bat etxekuen partez, prexioxa!



Ongi etorri **OIHAN!** Hillaren 5etik gure artian zagoz eta. Famelixaren eta, batez be, zure anaixa Ametsen partetik!



Zorionak, **LUCIA** eta **JON**, hillaren 17xan eta 28xan, 7 eta 10 urte betetzen dozuez eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.

ZURE EIBARKO KUADRILLAK EZ ZAITU INOIZ AHAZTUKO
ALEXANDER ROS ZABALA

Doroteo Urkia
Lasuen "Doroti"
2024/12/13

Argi bat amatau da gure famelixan ta beste bat ixotu da izarren artian. Etzaittugu ahaztuko bizitza guztian.

BETI EGONGO ZARA GURE BIHOTZIAN.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak goizez zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldari bezala. Interna. 607784902.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642044618.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. 635944602.
- Neska eskaintzen da arratsalde garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Esperientzia. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. 643505662.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde eta gau ez nagusiak zaintzeko. 642701710.
- LH ikasten diharduen neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. 688621149.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 643766267.
- Neska eskaintzen da arratsalde eta gau ez nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldari bezala. Baita asteburuetan ere. 673538021.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 643074369.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632844780.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Taberna baterako bigarren eskuko hotz-kutxa (izozkailua/ arkoia) behar da. 629526032.
- Aulki bihur daitekeen ibiltaria eta barruko opari aldagarria saltzen ditut. 150 euro. 649105442. Elena.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642431753.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburu eta jaiegunetan ere. 669181717.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta garbiketak egiteko. 638413158.
- Neska eskaintzen da garbiketak egiteko. Orduka edo interna. 639107272.

4.2. Langile bila

- Sukalde lanak egingo dituen esperientziadun pertsona behar da elkarte gastronomiko baterako. 620888320. Alex.
- Dekoratzailea behar da Eibarko Urrategi-Interiorismon. 629437192.
- Ileapandegirako laguntzailea behar da. Jornada erdirako. 619928881.



osasun gida

Medikuntza Estetikoak



abontza
clinica estetica

Medikuntza
- Dermatologia estetikoak
- Auzpejia gaitzetsua
- Botoxak

Kirurgia
- Betsakak, belanak...
- Liposukzioak
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Okulistak



Recalde
Clinica Oftalmologica
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

R.P.S. 20413

Pasa Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Psikologoak



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA
PSIKOTERAPIA
HAUR, NERABE ETA HELDUENAKO
ARRETA PSIKOLOGOAK
www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Tonibio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Moutragon Lili
GOKOZ EDA ARBIZALDEZ
Urkiizu, 13 - behea
tel. 943206823 / 686859023


ANE VESGA
CLINICA MEDICINA
ESTETICA

Mediku Estetikoak
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatuak

Arragueta 2bis B, Entrepantia A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



Podologoak



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOIA
Erdiko klinika


Nerea Arregi (123 Kalegatu zbkia.)
Rosario Rodriguez (125 Kalegatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kalegatu zbkia.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



PODOLOGOIA

Maidor
Lopez
Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kalegatu zbkia.



943-206776

Errekatxu Berri

BIZIGUNEA

BISITA EZAZU GURE PISU
PILOTU BERRIA.

AZKEN ETXEBIZITZA, GARAJE
ETA LOKALAK ESKURAGARRI
EIBARKO ERDIGUNEAN.



3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK:
285.000 €tik aurrera



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir